

ZAHARTZEA DERRIGORREZKOA HAZTEA BORONDATEZKOA

Doinua: "Itsasoan urak haundi"

1

Ugarituz doaz zaharrak,
beterik dagoz baztarrak;
baina ez gaitu inor lotsatzen
zahar izan beharrak.
Alperrik jenio txarrak,
beherantza doaz indarrak...
lan egiten ez, baina emoten
benetan azkarrak.

2

Gura ta gurez aurrera,
laster goaz azkenera;
geratzen danaz zelan jokatu
egin zeuk aukera.
Galtzen badogu karrera,
bertan galtzen da norbera;
azken mugara heldu ezkerro
ezin jo atzera.

3

Bihar izan nahi dozuna
gaur da baiezko eguna,
ez itzi beti lez gerorako,
emon erantzuna.
Ez da nahiko dakizuna,
egizu gaur ahal dozuna;
behin biziko ta holan jokatu?
Nun dago zentzuna?

4

Badot nahibeste denpora,
bizi nahi badot gustora;
alperrik galdu hainbeste urte?
Hau ez da ganora!
Oraintxe jatort gogora,
ondo dakit sartu nora:
nire moduko zahar batentzako
da Bizian Gora.

5

Hau esaera sakona,
egi galanta dinona:
"Urteen urtez ez da zimurtzen
gehienbat gizona".
Idealik ez daukona,
txatxukeriei emona;
urteak baino lehen zimurtzen da
holango pertsona.

6

Zaharren arteko afana:
"Nik hau, hori dakidana"
Isilik dago benetan hori
egiten dauana.
Kendu hileta, galbana,
eta laster mundu dana
konpondu baietz, txintxo eginez
danok apur bana.

7

Gaur bizi zaran erara
zoriontsu ez bazara,
nekez izango zara joan arren
hegaz Erromara
Ezergaitik ez ikara,
jokoan salto plazara;
zeugan daukazu poz-iturria
sartu sarri hara.

8

Beti hartuemonean
bizi naz zorionean;
hartu dodana emoten nabil
eskuzabalean .
Eta gero azkenean
aztertuz maitasunean,
emon dodana eroango dot
haruntz noanean. A. Martzel